

EUSKADIKO
EROSKETA
ETA KONTRATAZIO
BERDEAREN
PROGRAMA
2030

JARDUERA TXOSTENA 2021_{EKO} EKITALDIA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JARDUERA TXOSTENA 2021_{EKO} EKITALDIA



Txosten honetan, Ihobe Ingurumenaren Euskal Agentziak Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren idazkaritza teknikoan egindako jarduerak jasotzen dira, bai eta 2021eko ekitaldian EAEko sektore publikoaren lizitazioetan ingurumen-klausulak zenbateraino sartu diren ere.

© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua

48011 Bilbo

www.euskadi.eus

www.ingurumena.eus

www.ihobe.eus

compra.verde@ihobe.eus

2022ko apirila

AURKIBIDEA


1. EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN ARLOKO JARDUERA EUSKADIN, IHOBE IDAZKARITZA TEKNIKOAREN BIDEZ	6
2. HELBURU ESTRATEGIKOAK BETETZEN AURRERA EGITEA	8
3. INGURUMEN-KLAUSULAK EUSKAL LIZITAZIOETAN ZENBATERAINO SARTU DIREN	10
4. PROGRAMA HEDATZEA: ESPARRUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK	16
5. JARRAIPENA: AGINTE-TAULA INTEGRALA	25
6. ERANSKINAK	27
I. eranskina: Lizitazioen ingurumen-maila, erakunde publiko motaren arabera banakatua	27
II. eranskina: 2021eko jarduketan laburpena	28
III. eranskina: 2020-2025 ekintza-planaren aurrerapena	30

01. EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN ARLOKO JARDUERA EUSKADIN, IHOBE IDAZKARITZA TEKNIKOAREN BIDEZ



2021eko ekitaldia trantsizio-ekitaldi bat izan da, Euskadiko 2020 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren eta Euskadiko 2030

Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa berriaren artekoa.




Horregatik, Ihoberen jarduera nagusia, Euskadin erosketa berdea sustatzeko idazkaritza teknikoa den aldetik, honako hauetan oinarritu da:


- Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa prestatzea, izapidetzea eta behin betiko onartzea, eta
- aurreko programa itxi eta aztertzea, hau da, Euskadiko 2020 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa. Ezinbesteko lana izan da ondorioak ateratzeko eta oraingo programan gauzatu diren hurrengo urratsak ardazteko.

Azkenik, joan den abenduan onartu zen Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa.

Hala ere, Ihobek EAEko eragileen artean erosketa berdea sustatzen laguntzeko jarduera teknikoari eusten jarraitu du, eta hori agerian geratzen da jarraian aztertzen diren puntuetan, indarrean dagoen erosketa eta kontratazio berdearen programan planteatutako helburueta-rantz aurrera egiten laguntzen baitute.



02. HELBURU ESTRATEGIKOAK BETETZEN AURRERA EGITEA



Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programak epe ertainean (2025) eta luzean (2030) lortu beharreko hainbat helburu ezartzen ditu.

Jarraian, 2021eko ekitaldian lortutako emaitzak eta helburu horiek zeintzuk diren erakusten da (dokumentu honetan zehazkiago jorratuko dira):

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2021	2025 HELBURUA	2030 HELBURUA
Programari atxikitako erakunde publikoen kopurua	0	75	150
Programari atxikitako erakunde pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	0	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 adierazlea (4.6, ingurumen-irizpideak dituen kontratazioari buruzkoa)	3.72	4.0	4.2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan, kopuruan (*)	% 44	% 55	% 75
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan, bolumen ekonomikoan (*)	% 50,1	% 55	% 75
Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan, kopuruan	% 31,1	% 40	% 60
Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan, bolumen ekonomikoan	% 32,3	% 40	% 60

(*) Programan lehenetsitako kategoriak dira:



2021eko adierazleetan ikus daitekeenez, lizitazioetan ingurumen-klausulak sartzeko mailetan aurrera egiten jarraitzen da, baina ez da hasi programarekin konprometitutako eragile publi-

ko eta pribatuen dinamizazioarekin. Hori horrela da 2021ean programa berandu onartu zelako.

2021ean, **erosketa berde globalaren maila % 31,1**ekoa izan da lizitazio **kopuruari** dagokionez, eta **% 32,3**koa **bolumen ekonomikoari** dagokionez. Lehenetsitako kategoriek ingurumen-ehuneko handiagoak dituzte, % 40 kopuruan eta % 49 bolumen ekonomikoan.



03. INGURUMEN-KLAUSULAK EAE-KO LIZITAZIOETAN ZENBATERAINO SARTU DIREN

Aurreko ekitaldietan bezala, Ihobek, Eusko Jaur-laritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin lankidetzan, EAEko erakunde publikoen lizitazioetan erosketaren maila aztertzen du. Azterketa hori Euskadiko kontratazio-plataformatik¹ lortutako datuen bidez egiten da.

Jarraian, honako hauei buruzko datu hauek aurkezten dira:

- Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioak.
- Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioak, programan lehenetsitako produktumultzoen arabera.
- Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioak, erakunde esleitzaille motaren arabera.
- Lizitazioetan ingurumen-klausulak aplikatzeko lekua.
- Enpresa esleipendunen jatorria.

3.4 INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTE LIZITAZIOAK - INGURUMEN-MAILA OROKORRA

2021eko ekitaldirako Euskadiko kontratazio-plataformatik ateratako datuen arabera:

Erosketa berde orokorraren maila honako hau izan da:

% 31,1
lizitazio
kopuruan

% 32,2
bolumen
ekonomikoan

Erosketa publiko berdeak aurrerapen txiki bat izan du 2020. urtearekin alderatuta.

	Lizitazioak GUZTIRA	INGURUMEN-IRIZPIDEekin	Erosketa berdearen maila (%)
Lizitazio kopurua	6.949	2.160	31,1
Zenbateko ekonomikoa (€)	2.138.883.909,91	690.247.214,72	32,3

¹ <https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/>

3.5 INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK, PROGRAMAN LEHENETSITAKO PRODUKTU-MULTZOEN ARABERA

Aurrez esan bezala, programan bertan lehene-tsitako kategorietarako ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen ehunekoa aztertu da, lizitazio-kopuruari dagokionez (kop.) eta horien zenbateko ekonomikoei dagokienez (€).

Taula honetan ikus daitekeenez, 2021eko ekitaldian **energia elektrikoaren eta ehungintzaren** lizitazioek dagoeneko lortu dituzte 2025erako programan lehenetsitako kategoria horietarako ezarritako ehuneko objektiboak.

Produktu-multzo hauek helburu horiek partzialki betetzen dituzte, kopuruari edo bolumen ekonomikoari dagokionez: **argiteria publikoa, lorezaintza, inprimatzeko ekipoa, obra zibila, ibilgailu arinak eta astunak.**

Atzean daude **elikagaiak, ekipo informatikoak, eraikuntza eta urbanizazioa eta altzariak.** Horiek dute hobekuntza-marjina handiena ingurumen-mailan.

PRODUKTU-MULTZOA	EROSKETA BERDEAREN % (KOPURUA, KOP.)	EROSKETA BERDEAREN % (ZENBATEKOA, €)
Elikagaiak	% 32,7	% 33,9
Argiteria publikoa	% 57,6	% 59,2
Eraikuntza eta urbanizazioa	% 37,9	% 33,3
Energia elektrikoa	% 82,4	% 99,4
Inprimatzeko ekipoa	% 44,8	% 61,6
Ekipo informatikoak	% 33,3	% 23,0
Lorezaintza/berdeguneak	% 58,3	% 47,4
Altzariak	% 38,8	% 35,7
Obra zibila eta azpiegiturak	% 48,4	% 58,7
Ehunak	% 72,5	% 82,1
Ibilgailu arinak	% 62,1	% 56,1
Ibilgailu astunak	% 65,7	% 46,5
Guztira	% 44,0	% 50,1

2021ean, urte horretako programan
lehenetsitako produktuen kategorietako
 ingurumen-klausulak dituzten lizitazioak
% 44 izan dira **kopuruan**, eta **% 50,1 bolumen**
 ekonomiko osoari dagokionez.

PRODUKTU-MULTZOA	INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOEN KOPURUA (KOP.)	INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOEN ZENBATEKOAK (€)
Elikagaiak	54	3.560.201,46
Argiteria publikoa	38	2.883.999,24
Eraikuntza eta urbanizazioa	250	79.352.717,37
Energia elektrikoa	14	28.357.059,52
Inprimatzeko ekipoak	13	3.705.774,02
Ekipo informatikoak	34	2.868.545,45
Lorezaintza/berdeguneak	21	5.674.221,06
Altzariak	64	2.252.638,55
Obra zibila eta azpiegiturak	169	211.004.530,66
Ehunak	29	1.245.141,82
Ibilgailu arinak	54	3.078.450,17
Ibilgailu astunak	44	5.748.010,32
Guztira	784	349.731.289,64

ITURRIA: Euskadiko kontratazio-plataformaren "Kontratzailearen profila" ataletik lortutako datuak.
 2021/01/01etik 2021/12/31ra arteko aldia.

Obra zibilaren eta azpiegituren kategorian lortutako erosketa berdearen maila nabarmendu behar da; izan ere, lehenetsitako kategoria guztiekiko % 51,5 da zenbatekoan, eta 2021eko lizitazio guztiekiko lizitatutako zenbatekoaren % 16,8.

3.6 INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK, ERAKUNDE ESLEITZAILE MOTAREN ARABERA

Sektore publikoaren tipologiari buruzko azterketa egin ondoren, eta lizitazio guztiak kontuan hartuta (eta ez lehenetsitako kategoriak barririk), dagokion taulan ikus daitekeenez, foru-aldundiek eta probintziako beste erakunde batzuek lortutako erosketa berdearen ehune-

koa nabarmentzen da, zenbatekoari dagokionez. Era berean, kontratatutako zenbatekoaren % 23,5 da, EAeko sektore publiko osoak kontratatutako guztizkoaren aldean.

Toki-erakundeek eta haien sektore publikoak ere (kontratazio osoaren % 17,8 kudeatzen dute) erosketa berdearen maila oso onak dituzte beren lizitazioetan.

Horren atzetik, Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa (guztizkoaren % 37,1) eta Batzar Nagusiak daude (azken horrek oso garrantzi ekonomiko txikia du kontratazio guztien gainean).

ERAKUNDE MOTA	EROSKETA BERDEAREN % (KOPURUA, KOP.)	EROSKETA BERDEAREN % (ZENBATEKOA, €)
Eusko Jaurlaritza	% 30,2	% 26,5
Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoa	% 9,5	% 7,7
Beste bat - Eskualde-eremua	% 47,4	% 25,0
Foru Aldundia	% 47,4	% 72,6
Batzar Nagusiak (Forala)	% 9,1	% 1,2
Foru-sektore publikoa	% 26,4	% 38,9
Beste bat - Probintzia-eremua	% 53,5	% 80,4
Koadrila	% 68,6	% 77,5
Mankomunitatea	% 45,1	% 39,5
Udaletxea	% 45,8	% 51,5
Administrazio Batzarra	% 27,3	% 59,2
Tokiko sektore publikoa	% 44,4	% 51,4
Hitzarmen-batzarra	% 0,0	% 0,0
Guztira	% 31,1	% 32,3

3.7 LIZITAZIOETAN INGURUMEN-KLAUSULAK APLIKATZEKO LEKUA

Ingurumen-klausulak hainbat lekutan aplika daitezke lizitazioetan: gauzatze-baldintza bereziak, esleipena egiteko irizpideak, kaudimen-irizpideak edo zehaztapen teknikoak.

Lizitazioetan aplikatutako ingurumen-klausula guztietatik (horietako batzuk lizitazio berean), gehienak gauzatze-baldintza bereziak dira. Hori logikoa da; izan ere, indarrean dagoen egungo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eraginez, kontratu orok gutxienez gauzatze-baldintza berezi bat izan behar dute, ingurumen-, gizarte- edo etika-arlokoa.

2021ean kontratuetako **ingurumen-klausula guztien % 37,8 gauzatze-baldintza bereziak** dira, eta esleipena egiteko irizpideak % 24,8 dira.

APLIKAZIO LEKUA PLEGUAN	EHUNEKOA
Gauzatze-baldintza bereziak	% 37,8
Esleipena egiteko irizpideak	% 24,8
Kaudimen teknikoko irizpideak	% 19,1
Zehaztapen teknikoak	% 18,2

ITURRIA: Euskadiko kontratazio-plataformaren "Kontratzailearen profila" ataletik lortutako datuak. 2021/01/01etik 2021/12/31ra arteko aldia.



3.8 ENPRESA ESLEIPENDUNEN JATORRIA

Lizitazio guztiak kontuan hartuta, EAeko enpresa esleipendunak dira nagusi. Gainera, EAeko enpresen nagusitasuna are argiagoa da ingurumen-klausulak dituzten lizitazioetan.

EAeko enpresak ondo prestatuta daude ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioei aurre egiteko; izan ere, **ingurumen-izaerako lizitazioen % 72,3ren esleipendunak** dira, hots, **bolumen ekonomikoaren % 80,4**.

	INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOAK GUZTIRA		LIZITAZIOAK GUZTIRA	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
EAeko enpresen ehunekoa	% 72,3	% 80,4	% 63,2	% 69,6

ITURRIA: Euskadiko kontratazio-plataformaren "Kontratatzailearen profila" ataletik lortutako datuak. 2021/01/01etik 2021/12/31ra arteko aldia.





04. PROGRAMA HEDATZEA: ESPARRUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK

Jarraian, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren esparruan gauzatu-tako ekintzak deskribatzen dira; horri esker, 2025erako ekintza-planaren aurrerapena ikus daiteke.

Ekintza horiek programaren 5 esparruetan eta 10 jarduketa-ildotan kokatzen dira:

1. ESPARRUA: Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa	L1. Erosketa publiko berdearen funtsezko zeregina indartzea. L2. Euskadiko garapen-lehentasunekin bat datorrela bermatzea.
2. ESPARRUA: EAEko sektore publiko eta enpresarialaren erosketa eta kontratazio berdearen aldeko konpromisoa mobilizatzea eta lortzea	L3. EAEko sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea. L4. Sentsibilizatzea eta EAEko enpresen atxikimendua mobilizatzea.
3. ESPARRUA: Erosketa eta kontratazio berdea egitura- eta berrikuntza-elementu bihurtzea erakundeetan	L5. Inplementazio sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea. L6. Erosketa- eta kontratazio-funtzioa profesionalizatzea inplikaturako langile guztietan.
4. ESPARRUA: Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea erosketa eta kontratazio berdearen aurrean	L7. Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetzatza sustatzea. L8. Enpresa hornitzaileak prestatzea.
5. ESPARRUA: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea	L9. Ezarpena neurtzea eta onurak zenbatzea. L10. Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea.

1. esparrua

Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa

1. JARDUKETA-ILDOA:

**EROSKETA BERDEAK EAEKO SEKTORE PUBLIKO OSOAREN ESPARRU POLITIKO
ETA JURIDIKOAN TRESNA OPERATIBO GISA DUEN ZEREGINA INDARTZEA**

2. JARDUKETA:

**EROSKETA BERDEA EUSKADIKO ARAUDI ETA POLITIKA GARRANTZITSUETAN
TXERTATZEA**

– 1. EKINTZA: 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena

2021eko abenduaren 31n argitaratu zen 10/2021 Legea, Euskadiko ingurumen-administrazioarena. Lege horren 84. artikulua administrazio publikoei eskatzen die legean ezarritako helburuak lortzen lagunduko duten klausulak sar ditzatela kontratazio-pleguetan; bereziki, azpiproduktuak, bigarren mailako lehengaiak eta material birziklatuak edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozen materialak erabiltzea.

– 2. EKINTZA: Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana


2021eko abenduaren 2an onartu zen Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana. Programa berriaren bidez erosketa publiko eta pribatu berdea sustatzea funtsezko jardura da. Programa horrek lehentasuna emango dio EAEko biohondakinetatik datozen Europako etiketa ekologikoa duten bigarren mailako materialekin eta konpost-materialekin fabrikatutako materialen eskaintza eta eskaria sustatzeari.



– 3. EKINTZA: Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako plana


2021eko urriaren 26an onartu zen Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako plana 2021-2024.

Erosketa berdea planaren hainbat ekimenetan txertatzen da ekintza hauekin: BEG isuriak sartzea erosketa publiko eta pribatuan irizpide gisa, erosketa berdearen irizpideak integratzea ingurumenean oinarritutako irtenbideen katalogoan, eta erosketa publiko berdearen programa berria bultzatzea, administrazio publikoa trantsizio energetikorako eta erresilientiarako eredu gisa ezartzeko.



– 4. EKINTZA: Ekonomia zirkularraren eta bioekonomiaren 2024 plana

Urriaren 13an onartu zen Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024 Plana. Horren erronka nagusia kontsumo-eredu zirkularragoa sustatzea da. Ekintza-planean, 7. jarduketa-ildoan, besteak beste, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako irizpide berriak sartzen dira Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programan.



2. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA BERDEA EUSKADIKO INGURUMEN- ETA EKONOMIA-LEHENTASUNEKIN BAT DATORRELA ZIURTATZEA

3. JARDUKETA:

EROSKETA BERDEAREN IRIZPIDEAK BERRIKUSTEA ETA 3 URTEAN BEHIN EGUNERATZEA, EAEKO LEHENTASUNEKIN BAT EGITEKO

– 1. EKINTZA: Eraikuntza erosteko irizpideak eguneratzea

Aurten eraikuntzaren erosketa berdearen irizpideak eguneratu dira, bai eraikuntza berrien proiektuak kontratatzeke, bai obraren egikaritzea kontratatzeke.



– 2. EKINTZA: Urbanizazio-obrak erosteko irizpideak eguneratzea

Aurten urbanizazio-obren erosketa berdearen irizpideak eguneratu dira.



– 3. EKINTZA: **Kategoria guztiak eguneratzeko beharren azterketa**

2021ean, Ihoberen webgunean argitaratutako erosketa berdearen irizpideen berrikuspen orokorra egin da (30 produktu-kategoriari dagozkie), beharrezko eguneratze-maila eta berrikusi beharreko alderdiak identifikatze aldera.



2. esparrua

EAEko sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearen aldeko konpromisoan aurrera egitea

3. JARDUKETA-ILDOA:


EAEKO SEKTORE PUBLIKO OSOAREN PARTE-HARTZEA LORTZEA

6. JARDUKETA:

OBRETAN BIGARREN MAILAKO MATERIALA SARTZEN DELA ZIURTATZEKO LANTALDE BAT SORTZEA, EUSKADIKO HONDAKINAK PREBENITU ETA KUDEATZEKO 2030 PLANEAN DEFINITUTAKO ERABILERA ETA KALITATEEKIN BAT

– 1. EKINTZA: Lantaldearen ibilbidea diseinatzea

2021ean, talde horren ibilbidea diseinatu da, landu beharreko lehentasunezko gaiak eta jorratu beharreko dinamikak eta edukiak ezarriz.



3. esparrua

Erosketa eta kontratazio berdea egitura- eta berrikuntza-elementu bihurtzea erakundeetan

5. JARDUKETA-ILDOA:

INPLEMENTAZIO SISTEMATIKO ETA ESTRATEGIKORAKO BALIABIDEAK EMATEA

8. JARDUKETA:

LIZITAZIOAK GIROTZEKO LAGUNTZA PERTSONALIZATUKO EDO AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA INDARTZEA

– 1. EKINTZA: Laguntza pertsonalizatua ematea ingurumen-klausulak txertatzeko

2021ean, laguntza pertsonalizatua eman zaie 30 administrazio publikori, 55 aldiz.


Laguntza horren bidez, hainbat produktu eta zerbitzu kategoriatako 32 lizitazio girotu dira, eta 23 kontsulta ebatzi dira.

10. JARDUKETA:

EKIMEN PILOTUAK ABIARAZTEA EROSKETA BERDEAREN ESPARRUAN, GARAPEN ESKASAREKIN ETA LEHENTASUNEZKO ARLOETAN ZENTRATUTA, HALA NOLA BIZI-ZIKLOAREN KOSTUETAN EDO BERRIKUNTZAREN EROSKETAN

– 1. EKINTZA: Bizi-zikloaren kostuaren proiektu pilotua, Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ekipo informatikoak hornitzeko esparru-akordioan

Bizi-zikloaren kostuari buruzko proiektu pilotua amaitu zen, eta haren garapenari esker, oso ondorio interesgarriak atera ahal izan dira bizi-zikloaren kostuak esleipen-irizpide gisa sartu dituen lizitazioaren fase desberdinei dagokienez.



6. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA-ETA KONTRATAZIO-FUNTZIOA PROFESIONALIZATZE AINPLIKATUTAKO LANGILE GUZTIETAN

11. JARDUKETA:

EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN ARLOAN GAIKUNTZA-LERRO EGONKOR BAT EZARTZEA EAEKO SEKTORE PUBLIKOARI, BESTEAK BESTE, IVAPEN BITARTEZ

– 1. EKINTZA: Ekosteguna: Euskadiko eraikuntza industrializatu jasangarriaren gidaren aurkezpena

Joan den abenduaren 16an aurkeztu zen eraikuntza industrializatuaren gida, erabakiak hartzera bideratutako jardunaldi teknikoan. Gida horren bidez, sustatzaile pribatu edo publiko batentzat eraikuntza industrializatuaren aldeko apustua egi-tearen egokitasuna balioetsi daiteke.



4. esparrua

Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea

7. JARDUKETA-ILDOA:

MERKATUAREKIN ELKARRIZKETA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA, IRTENBIDE BERRITZAILEGOAK, JASANGARRIAGOAK ETA LEHIAKORRAGOAK AURKITZEKO

14. JARDUKETA:

ENPRESA HORNITZAILEEK TRESNA ETA BALIABIDE BERRIEN GARAPENEAN PARTE HARTZEN DUTELA ZIURTATZEA

– 1. EKINTZA: Euskal Autonomia Erkidegoko birgaitze eta eraikuntza jasangarrirako gidei buruzko kontraste- eta gogoeta-saioa

Joan den abenduaren 17an, lan-saioan parte hartu zuten eraikuntzaren balio-kateko enpresa eta erakundeek. Saioaren helburua eraikuntzan erosketa publikorako erabil daitezkeen gidei buruzko hausnarketa partekatua egitea izan zen.

8. JARDUKETA-ILDOA:

ENPRESA HORNITZAILEAK PRESTATZEA, BATEZ ERE ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, KONTRATATZAILEEN INGURUMEN-ESKAEREI AURRE EGITEKO

15. JARDUKETA:

EROSKETA BERDEA ETE ZIRKULARRAREN PROGRAMAN INTEGRATZEA

– 1. EKINTZA: ETE Zirkularra 2021 laguntza-programa



**ETE Zirkularra
PYME Circular
Euskadi**

Laguntza-lerro horrek erosketa berdeko proiektuak izan ditzakeen balio-katearen jasangarritasun-tipologia barne hartzen du. Gainera, erosketa berdea sartzen da “ingurumen driver” posible gisa, zeinari aurkeztutako proiektuak erantzun egin behar baition. Deialdi honetan laguntzak eman zaizkie erosketa pribatu berdean oinarritutako 12 proiekturi, ACLIMAk aurkeztutakoak.

5. esparrua

Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea

10. JARDUKETA-ILDOA:

EUSKADIREN AUERRERAPENAK ETA LORPENAK KOMUNIKATZEA ETA SUSTATZEA, BARRUAN, EUROPAN ETA NAZIOARTEAN


19. JARDUKETA:

EROSKETA BERDEAREN JARDUNBIDE EGOKIAK ETA PLEGUEN ADIBIDEAK ZABALTZEA EAeko SEKTORE PUBLIKOAN, BESTEAK BESTE, ALBISTEEN ETA BERRIEN SEIHILEKO BULETINEN BIDEZ

– 1. EKINTZA: Joerei buruzko txostenak

2021ean, 4 txosten egin dira erosketa eta kontratazio publiko berdearen joerei buruz, bat hiruhileko bakoitzeko. Horietan, gure muge barruko eta kanpoko gaurkotasuneko informazioa jasotzen da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko tresnak eta jardunbide egokiak ere.

Txostenak Ihoberen webguneko “Erosketa publiko berdea” atalean daude eskuragarri.



– 2. EKINTZA: Dibulgazio jardunaldia: Ekoberrikuntza eta erosketa berdea. Pleguak girotzea (2021.09.14)

Joan den irailaren 14an, EHUko uda ikastaroaren barruan, honako jardunaldi hau egin zen: “Diseinu zirkularreko estrategiak: hiriak, eraikinak eta ziklo itxietako produktuak”. Erosketa berdeak eraikuntza jasangarrian duen zeregina, Euskadik arlo horretan duen ibilbidea eta erabilgarri dauden baliabideak azaldu ziren bertan.





05. JARRAIPENA: AGINTE-TAULA INTEGRALA

Jarraian, Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programaren betetze-maila neurtzeko helburu eta adierazle guztien aurre-berriak jasotzen da.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2021	2025 HELBURUA	2030 HELBURUA
Programari atxikitako erakunde publikoen kopurua	0	75	150
Programari atxikitako erakunde pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	0	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 adierazlea (4.6, ingurumen-irizpideak dituen kontratazioari buruzkoa)	3.72	4.0	4.2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan, kopuruan (*)	% 44	% 55	% 75
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan, bolumen ekonomikoan (*)	% 50,1	% 55	% 75
Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan, kopuruan	% 31,1	% 40	% 60
Erosketa publiko berdearen ehunekoa kontratazio osoan, bolumen ekonomikoan	% 32,3	% 40	% 60

INPLEMENTAZIO-ADIERAZLEAK	2021	2025 HELBURUA
Ekintza-planetako ekintzen gauzatzeko-maila	% 7	% 100
Mobilizazio-/dinamizazio-ekintzen kopurua	3	3/URTEA
Prestakuntza-ekintzen/baliabideen kopurua	5	4/URTEA
Bistaratzeko-ekintzen kopurua	4	4/URTEA


Jarraian azaltzen den 2020-2025 ekintza-planaren exekuzioaren aurrerapena III. eranskinean zehazten da.

Implementazio-adierazleak ateratzeko, 2021ean egindako ekintzen kopurua gehitu da, II. eranskinean zehazten den bezala.

KUDEAKETA-ADIERAZLEAK	2021	2025 HELBURUA
Ekintza-planen jarraipen-txostenak egitea	OK	Urtekoa
Emaitzen eta aurrerapenen laburpenak argitaratzea	OK	Urtekoa
Ekintza-planen ebaluazio-txostenak egitea	Ez da ezartzen	2025



06. ERANSKINAK



I. ERANSKINA: LIZITAZIOEN INGURUMEN-MAILA, ERAKUNDE PUBLIKO MOTAREN ARABERA BANAKATUA

ERAKUNDE-MOTA	EROSKETA BERDEAREN % (KOPURUA)	EROSKETA BERDEAREN % (ZENBATEKOA)
Eusko Jaurlaritza eta bere sektore publikoa	% 15,3	% 12,0
Foru-erakundeak eta haien sektore publikoa	% 37,2	% 48,2
Toki-erakundeak eta haien sektore publikoa	% 45,7	% 51,1
Bestelakoak	% 43,5	% 57,4
Guztira	% 31,1	% 32,3

ITURRIA: Euskadiko kontratazio-plataformaren "Kontratzailearen profila" ataletik lortutako datuak.
2021/01/01etik 2021/12/31ra arteko aldia.

II. ERANSKINA: 2021EKO JARDUKETEN LABURPENA

Jarduketa-esparrua	Jarduketa-ildoak	Jarduketa	Egindako ekintzak	Lotutako adierazleak	Inplementazio-adierazlearen ekarpena
1. esparrua: Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa	L1. Erosketa publiko berdearen funtsezko zeregina indartzea, esparru politiko eta juridikoan tresna operatibo gisa	2 Erosketa berdea Euskadiko araudi eta politika garrantzitsuetan txertatzea	Honako hauetan txertatu da: Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legean, Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean, Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako planean eta Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024 Planean ⁴	Egindako ekintzen kopurua: 4	
	L2. Euskadiko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin bat datorrela bermatzea	3 Erosketa berdearen irizpideak berrikustea eta 3 urtean behin eguneratzea, EAEko lehentasunekin bat egiteko	Eraikuntza eta urbanizazio-obrak erosteko irizpideak eguneratu dira, eta gainerako kategoriak eguneratzeko beharrak aztertu dira	Garatutako edo eguneratutako kategorien kopurua: 3	Prestakuntza-ekintzak/baliabideak
2. esparrua: EAEko sektore publiko eta enpresarialaren erosketa eta kontratazio berdearen aldeko konpromisoan aurrera egitea	L3. EAEko sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea	6 Obretan bigarren mailako materiala sartzen dela ziurtatzeko lantalde bat sortzea, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Planean definitutako erabilera eta kalitateekin bat	Lantaldearen ibilbidea diseinatu da	Sortutako taldeen kopurua/Parte hartu duten erakundeen kopurua 0	Mobilizazioa/dinamizazioa

Jarduketa-esparrua	Jarduketa-ildoa	Jarduketa	Egindako ekintzak	Lotutako adierazleak	Inplementazio-adierazlearen ekarpena
3. esparrua: Erosketa eta kontratazio berdea egitura-eta berrikuntza-elementu bihurtzea erakundeetan	L5. Inplementazio sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea	8 Lizitazioak girotzeko laguntza pertsonalizatuko edo aholkularitzako zerbitzua indartzea	Lizitazioak girotzearekin lotutako 55 kontsultari erantzun zaie	Egin da/ Ez da egin 1	Prestakuntza-ekintzak/ baliabideak
				Erantzundako kontsulten kopurua 55	
		10 Ekimen pilotuak abiaraztea erosketa berdearen esparruan, garapen eskasarekin eta lehentasunezko arloetan zentratuta, hala nola bizi-zikloaren kostuetan edo berrikuntzaren erosketan	Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bizi-zikloaren kostuaren proiektu pilotua amaitu da	Egindako ekintzen kopurua 1	Mobilizazioa/ dinamizazioa
	L6. Erosketa- eta kontratazio-funtzioa profesionalizatzea inplikaturako langile guztietan	11 Erosketa publiko berdearen arloan gaikuntza-lerro egonkor bat ezartzea EAEko sektore publikoari, besteak beste, IVAPen bitartez	Euskadiko eraikuntza industrializatu jasangarriaren gida aurkezteko Ekosteguna egin da	Egin da/ Ez da egin 1	
			Egindako tailerren/jardunaldien kopurua 1	Prestakuntza-ekintzak/ baliabideak	
4. esparrua: Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea erosketa eta kontratazio berdearen aurrean	L7. Merkatuarekin elkarrizketa eta lankidetzaz sustatzea	14 Enpresa hornitzaileek tresna eta baliabide berrien garapenean parte hartzen dutela ziurtatzea	Euskal Autonomia Erkidegoko birgaitze eta eraikuntza jasangarriko gidei buruzko kontraste-eta gogoeta-saio bat egin da	Egindako ekintzen kopurua 1	Mobilizazioa/ dinamizazioa
				Parte hartu duten erakundeen kopurua 10	
	L8. Enpresa hornitzaileak prestatzea	15 Erosketa berdea ETE Zirkularraren programan integratzea	ETE Zirkularra 2021 laguntza-programak erosketa berdearekin lotutako proiektuak biltzen ditu	Egindako ekintzen kopurua 1	Mobilizazioa/ dinamizazioa
5. esparrua: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea	L10. Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea	19 Erosketa berdearen jardunbide egokiak eta pleguen adibideak zabaltzea EAEko sektore publikoan, besteak beste, albisteen eta berrien seihileko buletinen bidez	Joerei buruzko 4 txosten argitaratu dira. Ekoberrikuntza eta erosketa berdeari buruzko dibulgazio jardunaldi bat egin da	Argitaratutako buletinen kopurua 4	Bistaratze-ekintzak

III. ERANSKINA:

2020-2025 EKINTZA-PLANAREN AURRERAPENA

Jarduketa-esparrua	Jarduketa-ildoa	Ekintza	Aurrerapen-maila
1. esparrua: Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea, Euskadiko politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa	L1. Erosketa publiko berdearen funtsezko zeregina indartzea, esparru politiko eta juridikoan tresna operatibo gisa	1 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan ingurumen-klausulak txertatzeko jarraibide bat prestatzea	% 0
		2 Erosketa berdea Euskadiko araudi eta politika garrantzitsuetan txertatzea	% 20
	L2. Euskadiko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin bat datorrela bermatzea	3 Erosketa berdearen irizpideak berrikustea eta 3 urtean behin eguneratzea, EAEko lehentasunekin bat egiteko	% 7
		4 Erosketa berdeko baliabideek Euskadiren garapen jasangarriaren lehentasunak indartzen dituztela ziurtatzea	% 0
2. esparrua: EAEko sektore publiko eta enpresarialaren erosketa eta kontratazio berdearen aldeko konpromisoan aurrera egitea	L3. EAEko sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea	5 Lan-taldeak sortzea, administrazioen profilaren arabera, lizitazioetan ingurumen-irizpideak azkarrago txertatzeko, sare nagusi gisa Udalsarea2030 erabiliz	% 0
		6 Obretan bigarren mailako materiala sartzen dela ziurtatzeko lantalde bat sortzea, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Planean definitutako erabilera eta kalitateekin bat	% 5
	L4. Sentsibilizatzea eta EAEko enpresen atxikimendua mobilizatzea	7 EAEko enpresen sektorean erosketa eta kontratazio berdea egiteko estrategia/programa espezifiko bat definitzea, eta horrek EAEko enpresen hornikuntzan ingurumen-irizpideak txertatzeko bultzada eragingo du	% 0

Jarduketa-esparrua	Jarduketa-ildoak	Ekintza	Aurrerapen-maila
3. esparrua: Erosketa eta kontratazio berdea egitura-eta berrikuntza-elementu bihurtzea erakundeetan	L5. Inplementazio sistematiko eta estrategikorako baliabideak ematea	8 Lizitazioak girotzeko laguntza pertsonalizatuko edo aholkularitzako zerbitzua indartzea	% 20
		9 Erosketa eta kontratazio berderako tresna eta baliabide teknikoak prestatzea eta/edo egokitzea	% 0
		10 Ekimen pilotuak abiaraztea erosketa berdearen esparruan, garapen eskasarekin eta lehentasunezko arloetan zentratuta, hala nola bizi-zikloaren kostuetan edo berrikuntzaren erosketan	% 20
	L6. Erosketa- eta kontratazio-funtzioa profesionalizatzea inplikaturako langile guztietan	11 Erosketa publiko berdearen arloan gaikuntza-lerro egonkor bat ezartzea EAeko sektore publikoari, besteak beste, IVAPen bitartez	% 20
		12 Inplikaturako langile berriak integratzeko eskuliburu-erako materiala garatzea, zeregin estrategikoari eta beren jarduketan ingurumen-irizpideak kontuan hartzeko betebeharrari buruzkoa	% 0
		13 Erakunde kontratatzaileen (publikoak eta pribatuak) eta erakunde hornitzaileen arteko elkarriketa-bideak ezartzea, produktu-taldeetan edo lehentasunezko eremuetan zentratuta, beharrak aurkezteko, dauden konponbideak ezagutarazteko eta emaitzak maximizatzeko, besteak beste, merkaturako aurretiazko kontsulten eta berrikuntzarako elkartzearen bidez	% 0
4. esparrua: Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea erosketa eta kontratazio berdearen aurrean	L7. Merkatuarekin elkarriketa eta lankidetzaren sustatzea	14 Enpresa hornitzaileek tresna eta baliabide berrien garapenean parte hartzen dutela ziurtatzea	% 10
		15 Erosketa berdea ETE Zirkularraren programan integratzea	% 20
	L8. Enpresa hornitzaileak prestatzea	16 Enpresa hornitzaileentzako prestakuntza-saioak egitea, ingurumen-aldagaia beren ondasun eta zerbitzuetan sartzeari buruz eta eskaintzak prestatzeari buruz	% 0

Jarduketa-esparrua	Jarduketa-ildoak	Ekintza	Aurrerapen-maila
5. esparrua: Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea	L9. Ezarpenera neurtzea eta onurak zenbatzea	17 Onurak/emaitzak neurtzeko sistema bat definitzea, erosketa publiko berdearen abantailak identifikatu ahal izateko	% 30
		18 Ingurumen-onurak kalkulatzeko ahalbidetzen duten alderdiak kontratazio berdearen irizpideetan bertan integratzea	% 0
	L10. Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak komunikatzea eta sustatzea	19 Erosketa berdearen jardunbide egokiak eta pleguen adibideak zabaltzea EAEko sektore publikoan, besteak beste, albisteen eta berrien seihileko buletin bidez	% 20
		20 Euskadik Nazio Batuen "Programa on Sustainable Public Procurement" eta Iclei sarearen "Procura+" programetan parte-hartze handiagoa izatea lortzea	% 0
		21 Erosketa publikoaren arloko foro bat egitea urtero, esperientziak aitortu eta partekatze eta kontratazioan ingurumen-irizpideak azkarrago txertatzeko	% 0
	EKINTZA-PLANAREN AURRERAPEN-MAILA		